

## **Bilbo eta Portugaleteko udalak saritu dituzte, genero indarkeriaren aurka egiten duten borrokagatik**

- **Espainiako Udalerri eta Probintzien Federazioak (FEMP) eta Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak antolatutako Genero Indarkeriaren Aurkako Tokiko Praktika Onen Lehenengo Lehiaketan saritu dituzte.**

FEMPeK Bilbo eta Portugaleteko udalak saritu ditu, genero indarkeriaren aurkako praktika onengatik, Praktika Onen Lehiaketaren lehenengo edizioan. Bilboko Udala “Bilbao, emakumeenganako indarkeriaren aurrean 0 tolerantzia” izeneko ekimenagatik saritu dute. Bestetik, Portugaleteko Udala “Sentsibilizazioa eta prebentzioa” kategorian saritu dute, “2011-2014ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planaren Garapena eta Ekintzak (ardatza: genero indarkeria)” proiektuagatik.

Aintzatespen horien helburua da genero indarkeriaren aurkako borrokan esperientziak trukatzea eta jarduera eraginkor eta berritzaileenak aintzatestea.

### **“Bilbao, 0 tolerantzia”**

Bilboren kasuan, aintzatespen hori 2012ko maiatzean Nazio Batuek genero indarkeriaren kontrako prebentziorako eta esku-hartzerako programa integralari emandako sariari gehitzen zaio. Ardatz nagusiak hauek dira:

- Erakundeen arteko eta sailen arteko koordinazio handiagoa.
- Udalaren esku-hartze programan sartzen diren biktimen kopurua areagotzea.
- Genero indarkeriaren biktima direnen seme-alabak nahiz biktimak eurak artatzea.
- Prebentzioaren alde egitea, gatazka eta genero indarkeriako egoerak errotik desagerrarazteko tresna gisa.

**“2011-2014ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planaren (ardatza: genero indarkeria) garapena eta ekintzak”.**

Portugaletek eskarmentu handia du genero indarkeriaren esparruko lanean, eta, besteak beste, hainbat material, kanpaina, ikerketa, sentsibilizazio jarduera eta jardunaldi egin ditu.

Saria ahalbidetu duen estrategiak biktimak babestu eta artatzeko neurriak eta baliabideak egituratzen ditu, sentsibilizazio eta prebentzio jarduerak gauzatzeaz gainera.

2011-2014ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planak (ardatza: genero indarkeria) EAEko V. Berdintasun Plana du ardatz, eta Berdintasuneko Batzorde Mistoaren eta udal langilez, alderdi politikoz eta emakumeen elkarte nahiz mugimenduaren ordezkari osatutako herri-partaidetzako talde baten laguntza izan du.